

1.- Egizu ondoko bi dokumentuetako **bat**en iruzkina (testua aukeratzen baduzu, iruzkin osoa; taula hautatu ezker, partziala, hots, “Testuinguru historikoa” atalik gabe) [2. bidea hartu baduzu, **iruzkin biak** egin beharko dituzu].

a) **Ludd “jeneralaren” garaipena.**

Ez itzazu gehiago kantatu Robin Hood-i buruzko zure [bertso zaharrak haren ekintzak ez ditut gehiegi miresten eta. Ludd jeneralaren lorpenei kantatuko diet nik, Nottinghamshireko egungo heroiarenei. Ludd ausarta ez zegoen biolentzia erabiltzera ohituta bere sufrimenduak izugarriak bihurtu ziren arte. Azkenik jaiki egin zen bere interesak defendatzearen eta ekintza handirako prestatu egin zen (...)

Errudunak beldurra izan dezake, baina mendekurik ez du hartuko zintzoaren biziaren edo ondasunen aurka. Bere amorrua makinaren kontrakoa da guztiz eta prezio zaharrak jaisten dituztenen kontrakoa. Gaiztakeria-makina horiek heriotza-zigorrra [kondenatuak izan ziren artisauen aho bateko botoarekin eta Ludd, edozeri aurre egin diezaiokenez, exekutatzailer nagusi izendatu zuten.

Suntsiketa-lanak gauzatzeko ez da bide bakar batera mugatzen: suaz eta uraz suntsitzen ditu,

elementuek bere nahietan laguntzen baitiote. Berdin dio soldaduek errepedeak zaintzen badituzte edo egoitzetan ongi babestuta badaude: guztiak ikaratuko ditu gau eta egunez, eta ezerk ez du leunduko haien hondamendia.

Norbaitek gaitzets dezake Ludden legeekiko errespetu falta [handia baina ez da inola ere horrela. Inposaketa ero hura bakarrik izan zen ondorio triste hauek eragin zituen kausa. Ez diezaiogun utzi aberatsari xumea gehiagotan zapaltzea. Ludd bere ezpata garaitzailea zorrozterakoan txiroaren aurkako irainek berehalako ordaina izango dute eta bizkor berrezarriko da bakea.

Jakintsuek eta ahaltsuek laguntza eta aholkua eman dezatela, sorospena eskain dezatela beti, lana eta prezioa antzinako usadioetara ohituraz eta legez berrezarri bitartean. Orduan, eztabaida neketsu hau amaitutakoan, salerosketak harro goratuko du berriz burua. Eta gazteak ofizial gisa enplegatuz eta lana zitalduz ez zaie aurrerantzean gizon langile zintzoei ogia kenduko.

1812 inguruko kanta herrikoia, Nottinghamshire (*Ingalaterraren erdialdean, ehungintza tradizionalerako zona bat zehinetan irundegi mekanikoak nabikoa bizkor sartu baitziren, XVIII. mendearen azkeneko laurdenetik, eta, geroago, baita ehundegi mekanikoak ere*).

b) Taula: **Errusiar Inperioko eta Sobiet Batasuneko zifra ekonomiko batzuk.**

	1913	1928	1932	1937	1940
<u>Zerealak (milioika tonatan)</u>	51,8	69,3	74,0	97,4	95,6
<u>Abelgorriak (milioika burutan)</u>	32,1	37,6	23,1	29,4	28,3
<u>Altzairua (milioika tonatan)</u>	1,8	4,3	5,9	17,7	18,3
<u>Elektrizitatea (milaka milioi KW/orduko)</u>	1,3	5,0	13,5	36,2	48,6
<u>Ehunak (milaka milioi metrotan)</u>	2,8	2,2	2,1	3,0	3,3

2. **Aukeratu bi galdera hauetatik bat eta erantzun ahalik eta modu sakonenean.**

- a) Konparatu XIV. eta XVII. mendeetako krisi feudalak.
- b) Merkataritzaren bilakaera Europan, XI.-XVIII. mendeak. Ezaugarri orokorrak, jarraikortasunak eta aldaketak.

[**Oharra:** azterketa egiteko hiru orri erabil daitezke gehienez, hots, sei orrialde guztira (1. bidekoa bazara; 2. bidetik doazenek, hots, lanak egin ez dituztenek edo klasera etorri ez direnek, beste hiru orrialde erabili ahal izango dituzte, jakina). Galdera bakoitzak %50 balio du (hiru galderei erantzun behar izatekotan %33,3). Letra ona egin behar da, eta ez txikiak. Euskararen kalitatea oso kontuan hartuko da, eta erabakigarria izan daiteke kalifikazioa esleitzeko unean. Gogoan hartu iruzkina egitean ez dela “beste era batean” kontatu behar taulan edo testuan agertzen dena, analizatu baizik: azalpenak eman alegia, ezagutzak materialari aplikatuz, baina proposatutako materiala (testua, taulako datuak) ahaztu gabe].